

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak ez du Unibertsitate Publikoko matrikularen prezioa igoko 2013-2014 ikasturtean

*Urte arteko inflazioaren baliokidea dena soilik eguneratuko da, hau da, % 1,3*

Lunes, 10 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak ez ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko matrikularen prezio publikoak igoko 2013-2014 ikasturtean. Haiek eguneratuko dira apirileko (ezagutzen den azken datua) Nafarroaren urte arteko inflazioaren baliokidean bakarrik, hau da, % 1,3. Horrenbestez, prezioak aurtengo ikasturtekoak izango dira, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren araudiak uzten duen gutxienean, hain zuzen.

Horrek esan nahi du matrikularen % 85 (% 75 masterretan) herritarrek finantzatu dutela zergen bidez eta ikasleen familiek gainerako % 15 bere gain hartuko dutela (% 25 masterretan). Gainera, behar besteko baliabide ekonomikorik ez duten familien kasuan, ikasleei beka emango zaizkie, baldin eta emaitza akademikoak onak badira, haiek egindako ahalegina saritzeko asmoz.

Bestalde, 2., 3. eta 4. matrikulen portzentajeei eusten zaie, ikasleek ikasgaiak errepikatu behar dituzten kasuan.

Irizpide horrekin igoserak honako hauetan zehazten dira:

- Gradutan, 6,1 eta 8,65 euro artean seihileko.
- Ziklotan, 10,4 eta 14,8 artean ikasturteko.
- Masterretan, 21,3 euro profesionalizatzeko helburua dutenak eta 34,1 euro profesionalizatzeko helburua ez dutenak, masterreko (60 kreditukoak).

Errepikatzen diren ikasgaietan (sei kredituko ikasgairako kalkulatu da):

- Gradutan,
  - Bigarrenak (hirugarren eta laugarren deialdiak), 2,45 eta 3,47 euro artean.
  - Hirugarrenak (bosgarren eta seigarren deialdiak), 5,31 eta 7,52 euro artean.
  - Laugarrenak (zazpigarren eta zortzigarren deialdiak), 7,35 eta 10,41 euro artean.
- Ziklotan,
  - Bigarrenak (hirugarren eta laugarren deialdiak), 2,08 eta 2,95 euro artean.

- Hirugarrenak (bosgarren eta seigarren deialdiak), 4,52 eta 6,40 euro artean.
- Laugarrenak (zazpigarren eta zortzigarren deialdiak), 6,25 eta 8,86 euro artean.
- Masterretan,
  - Bigarrenak (hirugarren eta laugarren deialdiak), 2,56 eta 5,55 euro artean.
  - Hirugarrenak (bosgarren eta seigarren deialdiak), 5,55 euro.
  - Laugarrenak (zazpigarren eta zortzigarren deialdiak), 5,55 eta 7,68 euro artean.